



GOBERNU ORGANOAK ETA HAIEN ZEREGINAK

A) Alkatea:

- Osoko Bilkurako, Tokiko Gobernu Batzarreko eta Kontratazio Mahaietako buru egitea.
- Alkateordeak eta Tokiko Gobernu Batzordeko kideak izendatzea.
- Udalaren ordezkari instituzionala izatea eta Udalak hartzen dituen erabakietan eta egiten dituen hitzarmen eta kontratuetan haren ordezkaritza izatea.
- Udal gobernua eta udal administrazioa zuzentzea.
- Udal aurrekontuaren proiektua proposatzea.
- 18.000 eurorainoko gastuak onartzea.
- Osoko Bilkuraren erabakietatik kanpoko obra, hornidura eta zerbitzuak kontratatzea, baldin eta diru sarrera arrunten % 10 baino gehiago ez badira.
- Administrazio zerbitzuak antolatzea.
- Langileen goi-buruzagitza eta Udaltzaingoaren zuzeneko buruzagitza izatea.
- Akzio administratiboak eta judizialak baliatzea.
- Osoko Bilkurari proposamenak aurkeztea.
- Bandoak ematea.
- Udal ordenantzak haustea zehatzea.
- Larrialdietan behar diren neurriak hartzea.
- Udaleko Kirol Patronatuko, Musika Eskola Publikoko eta San Andres Fundazioko lehendakaria izatea.

B) Tokiko Gobernu Batzordea:

- Alkateari bere eskumenak gauzatzen laguntzea.
- Alkateak berak emandako atribuzioak:
 - Udal zerbitzuak eta obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea; udal zerbitzuen lizentziak edo baimenak ematea, edo, udalak arautzekoak izan baina udalbatzaren eskumenekoak ez direnak arautzea eta erakundeei -ekitaldiak antolatzeko-zerbitzuak eskaintzea.



- Onartutako aurrekontuaren kudeaketa ekonomikoa garatzea.
- Gastuak egiteko erabakiak hartzea horiek 18.000 eurotik gorakoak direnean, betiere administrazio-kontratazio espedienteei buruzkoak ez direnean.
- Ordainketen luzapenak ematea.
- Udalbatzaren eskumenekoak ez diren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak ematea.
- Udalbatzari ez dagozkion ondare-erantzukizuneko erreklamazioak ebaztea.
- Lan-eskaintza edo enplegu-eskaintza langile-zerrendaren arabera onartzea.
- Langileak aukeratzeko oinarriak onartzea.
- Langileak izendatzea eta lan-kontratuak egitea.
- Langile-zerrendan edo lanpostuen zerrendan aldaketarik ez badakarte, norbanakoak lanpostuei atxikitzea.
- Soldata-osagarriak finkatzea; ez finkoak, ez aldizkakoak.
- Lan-baldintzak betetzea: lizentziak, soldata-aurrerapenak, lan utzialdiak, oporraldiak edo ikastaroak.
- Bateragarritasunen aitortzea egitea.
- Langileei zigorrak edo zehapenak ezartzea, kalera botatzea eta zerbitzutik kentzea izan ezik.
- Udalbatzak onestekoak ez diren planeamendurako tresnak onartzea.
- Hirigintza-kudeaketarako eta urbanizazio-proiektuetarako tresnak onartzea.
- Aurri-aitorpenak egitea, berehalako aurri-aitorpenak izan ezik.
- Obra eta hirigintza lizentziak ematea, "obra txikien jakinarazpena eta "tramite laburreko lizentzia" izeneko prozedurak izan ezik.
- 18.000 eurotik gorako ondasunak erostea, betiere, udalbatzaren eskumenekoak ez badira.
- Aurrekontuan aurreikusitako higiezin basterenganatzeak egitea, betiere udalbatzaren eskumenekoak ez badira.
- Altzariak basterenganatzea, balio historikokoak edo artistikokoak izan ezik.
- Udalbatzaren eskumenekoak ez diren doako lokal lagapenak egitea.



C) Osoko Bilkura:

- Udaleko zinegotzi guztiek osatzen dute, eta alkatea du buru.
- Hauek dira, nolani ere, osoko bilkurari dagozkion eskumenak:
 - Alkatea aukeratzea.
 - Zentsura-mozioei buruzko bozketak egitea, baita konfiantzazko mozioenak ere.
 - Udalerriaren izena, armarrria eta bandera erabakitzea.
 - Beste gobernu-organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.
 - Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea.
 - Organo autonomoak sortzea.
 - Zerbitzuak kudeatzeko modua erabakitzea.
 - Beste administrazio batzuek emandako eskumenak eta zereginak onartzea.
 - Beste toki-erakunde batzuei eta gainerako herri-administrazioei eskumen gatazkak jartzea.
 - Hirigintza-antolaketa orokorreko tresnak onartzea.
 - Hirigintza-antolaketa xeheko tresnei azken onespina ematea.
 - Udal ordenantzak eta araudi organikoa onartzea.
 - Aurrekontuak eta Kontu Orokorra onartzea.
 - Prezioak, tasak eta zerga-ordenantzak onartzea.
 - Langileen plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea.
 - Soldata finko eta aldizkakoak finkatzea.
 - Akzio judizialak eta administratiboak baliatzea eta udalbatzaren defentsa egitea osoko bilkuraren eskumeneko gaietan.
 - Udal ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
 - Diru-sarrera arrunten %10 baino handiagoko edo hiru milioi baino handiagoko ondasunak eskuratzea.
 - Aurrekontuan jasota ez dauden ondasun-besterentzeak egitea.



- Diru-sarrera arrunten % 10 baino kostu handiagoko kreditu-eragiketak ituntzea.
- Diru-sarrera arrunten % 10 baino kostu handiagoko obra, hornikuntza eta zerbitzuak kontratatzea.
- Urte anitzeko gastuak edo aurrekontuan jaso gabeko kreditu-konpromisoak onartzea.
- Plan estrategikoak onartzea.
- Onartuak izateko gehiengo berezia behar dutelako, osoko bilkurari dagozkion gainerako eskumenak.
- Legeek berariaz emandako gainerakoak.

D) Bozeramaileen Batzordea:

- Talde politikoek, alkatearekin batera, Udalarentzako gai garrantzitsuenak aztertzen dituzte. Ez da gai juridiko-administratiboetan erabakiak hartzeko organo bat.
- Aurkeztutako mozioak aztertzea, onartzeko, baztertzeko edo Osoko Bilkurara bidaltzeko.

E) Hirigintzako zinegotzi ordezkaria

- Obra txikien jakinarazpentzat edo tramite laburreko jakinarazpen edo lizentziatzat sailkatutako hirigintza-lizentziak ematea.

F) Alkateordeak:

- Alkatea ordezkatzea hark kargua hutsik lagatzen duenean edo kanpoan dagoenean.

G) Lan batzordeetako presidentea

- Bileretara deitzea.
- Bileretako burua izatea.
- Botoa ematea, eta berdinketetan bere kalitateko botoarekin erabakitzea.
- Osoko Bilkurarentzako irizpenak izenpetzea.

H) Batzorde aholkularietako presidentea

- Bileretara deitzea.



- Bileretako burua izatea.
- Botoa ematea, eta berdinketetan bere kalitateko botoarekin erabakitzea.
- Tokiko Gobernu Batzordearentzako proposamenak izenpetzea

I) Taldearen bozeramailea

- Bozeramaileen Batzordeko kide izatea.
- Osoko Bilkuran taldearen jarreraren defentsa egitea.
- Taldearen ordezkaria izatea.

J) Taldearen koordinatzailea

- Udal barruko hartu-emanetan taldea ordezkatzeko.

K) Zinegotzia

- Osoko Bilkuretara joatea eta botoa ematea.
- Bera partaide den batzorde eta organoen bileretara joatea, hausnartzea eta bozkatzea.

L) Lan batzordea:

- Bere lan arloko gaietan erabakiei buruzko irizpenak aztertzea, hausnartzea eta Osoko Bilkurari proposatzea.

LL) Batzorde aholkulariak:

- Bere zerbitzu, unitate eta arloetako gaietan erabakiak aztertzea, hausnartzea eta Tokiko Gobernu Batzordeari proposatzea.

ORGANO AUTONOMOEI BURUZKO OINARRIZKO JAKINGARRIAK:

1.- Kiroletako Udal Patronatua:

Zereginak:

- Kirol-ekipamenduak kudeatzea.
- Kirol-jarduna erraztea.
- Kirol-elkarteak sustatzea.



- Beste erakunde batzuekin elkarlanean jardutea, eskola-kirola garatzeko.

Harremanetarako: Ipuruako kiroldegiko bulegoak, Santaines.

Webgunea: <https://www.eibarkirola.com/es/>

Instalazioak:

- Ipuruako kiroldegia.
- Unbeko kirolgunea.
- Orbea kiroldegia.
- Astelena pilotalekua.

Gobernu organoak:

Zuzendaritza Kontseilua
Kontseilu Iraunkor Betearazlea
Presidentea/Presidenteordea
Kudeatzailea

Araubide juridikoa:

Kirol Patronatuaren Estatutu Arautzaileak (2006ko maiatzaren 26an GAOren 99 zenbakian argitaratuak)

2.- San Andres Fundazio Publikoa

Zereginak:

- Egoitzan bizi diren zaharrei edo gaixoei behar duten laguntza ematea.

Harremanetarako: egoitzaren bulegoak, Legarre.

Instalazioak: Legarreko egoitza.

Gobernu organoak:

Batzordea
Presidentea eta presidenteordea
Administratzaile-kudeatzailea

Araubide juridikoa:

San Andres Fundazio Publikoaren Estatutu Arautzaileak (1994ko urtarrilaren 24an



GAOren 14. zenbakian eta 1989ko urriaren 23an GAOren 201. zenbakian argitaratuak)

3.- Juan Bautista Gisasola Musika Eskola Publikoa

Zereginak:

- Musika irakasteko eta sustatzeko kultur zerbitzuak kudeatzea eta administratzea.

Harremanetarako: Portaleko bulegoak, Bista Eder 10.

Web orria: <http://www.eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/musika-eskola>

Instalazioak: Portalearen eraikineko eskolako ikasgelak

Gobernu organoak:

Zuzendaritza Kontseilua
Presidentea eta presidenteordea
Kudeatzailea

Araubide juridikoa:

Juan Bautista Gisasola Musika Eskola Publikoaren Patronatuko Estatutu Araztaileak (2006ko maiatzaren 26ko GAOren 99. zenbakian argitaratuak).